

Skalariak, Bonberenean

'Luz Rebelde' diskoa Gipuzkoan aurkezteko aukeratu dute ▶ 3




Harpidedunei banatua ▶ Larunbata ▶ 2006-04-29 ▶ IV. urtea ▶ 872. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

CARLOS PEÑA ▶ IGERILARIA

«Gogotsu nintzen Euskal Herriko ibai esanguratsu hau jaisteko»

TOLOSA ▶ Nerbioi zeharkatuko du gaur Carlos Peñak, Chernobileko ezbeharraren 20. urteurrenean

ELKARTASUNA ▶ «Ea esfortzu honekin jendea ohartzen den Chernobil Elkartearen lanaz» ▶ 2



Carlos Peña. L. MONTES



Taldekako Sega Lehiaketa antolatu du Almitzak Tolosan, kirola berpizteko

TOLOSALDEA ▶ Segarako zaletasuna sustatzeko xedez, festa herrikoia antolatu du Almitza elkarteak Tolosan. Taldekako Sega Lehiaketa, «orain arte Euskal Herrian ikusi ez dena», maiatzaren 21ean izango da, Iurreamendiko zelaietan. Edonork har dezake parte lehian; maiatzaren 2ra arte eman daiteke izena. HITZA ▶ 6

LEITZA ▶

Urrezko Aizkolari eta harri-jasotzaile lehian ariko dira Rekondo eta Urrutia ▶ 7

ZIZURKIL ▶

Irudimena ardatz hartuta abiatuko da aurtengo Maiatza Saltsan

Era guztietako ekitaldiak prestatu dituzte; «horrelako herri txiki batentzat egiten den ahalegina handia da» ▶ 4

B.H.I. I.E.S.
ORIXE
TOLOSA

**BAILARAKO
ESKAINTZARIK
ZABALENA**

ORIXE Bigarren Hezkuntzako Institutua

BATXILERGOA
Teknologia
Natura eta Osasun Zientziak
Gizarte eta Giza Zientziak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA
Natura inguruneko kirol
ekintzen gidaritza

943 65 13 87
E-mail: 012980aa@hezkuntza.net www.orixe.net

Aurrematrikula: Batxilergoa: apirilaren 25etik maiatzaren 6ra / Erdi mailako zikloa: Ekainaren 1etik 8ra

CARLOS PEÑA ▶ IGERILARIA

«Euskal Herriko ibai esanguratsuenetakoa da, eta gogoia nuen jaisteko»

Chernobileko ezbeharraren 20. urteurrena dela eta, Nerbioi ibaia zeharkatuko du gaur igerian tolosarrak



LEIRE MONTES

ESTI EZEIZA

Chernobil-eko (Ukraina) hondamendiaren 20. urteurrena dela eta, Bizkaiaiko Nerbioi ibaia jaitsiko du gaur Carlos Peña igerilari tolosarrak. Egitasmo hau, Chernobil elkartearen laguntzatekin antolatuta, ezbeharraren oroigarri gisa. Hala, 40 kilometroko luzera duen ibai hau igerian jaisten den lehenengo aldia izango da. **Zein modutan ezagutu duzu Chernobilgo hondamendia?** Ezagutzen dudana duela 20 urte gertatutakoa da, entzundakoa. Bestetik, Chernobil Elkartea egiten duen lanaren berri ere badut: haurrak eta hona ekartzen. **Nolatan sortu zen egitasmo hau egiteko aukera?**

Chernobil Elkartekoek deitu zidaten, urteurrenaren berri emanez, eta komentatu zidaten zerbait egin nahi zutela oroigarri gisa. Horrela, Nerbioi ibaia-zen jaitsierarena komentatu nien, eta ideia gustatu zitzaizkenez, egitea erabaki genuen.

Zein da proba honen helburua?

Alde batetik, kirol lorpenari dagokiona dago. Eta bestetik, Chernobileko Elkarteari laguntzearrena, urte asko baitaramatzate hondamendia jasan zutenei laguntzen, eta hona haurrak ekartzen oxigena daitezen. Ea esfortzu honekin jendea ohartzten den egiten ari diren lanaz, ekitaldi honekin ez baitugu ezer irabaziko guk. Biltzen den dirua, egoera hau bizi zutenei laguntzeko da.

Zergatik Nerbioi ibaia ez beste bat?

Alde batetik, dagoeneko ibai gutxi geratzen zaizkidalako zeharkatzeko. Eta bestetik, Euskal Herriko ibai esnguratsuenetakoa da hau, eta gogo handia nuen jaisteko.

Zein ezaugarri ditu ibaiak?

Bi alditan joan naiz ingurua ezagutzera, eta ikusi ahal izan dudanez, Laudiotik Basaurirako ibilbidean, hau da, jaitsierako lehen 4-5 orduetan kolpe ugari hartuko ditut. Eremu hori oso arrokatsua baita, presak ere badaude, eta oso arrisku-tsua da igeri egiteko. Ondoren, Portugaleterainoko 20 kilometroetan ur asko dago, eta olatu handiak badaude, zailtasun handiak izango nituzke aurrera joateko. Honez gain, lehenengo zatian jasandako kolpeen eragina ere hor izango dut. Haurrak dira ibaiarekiko ikusten ditudan zailtasunik handienak, eta gero, eguraldia ikusi behar.

Nola prestatu duzu zeure burua?

Gauzatu nuen garrantziko azken proba Tolosako Usabal igerilekuan 24 orduz egindako hura izan zen. Eta oraingo honetarako ibaietan eta gehiago ibili naiz. Izan ere, igeriketarako baldintzak asko aldatzen dira batetik bestera.

Lortuz gero, nola ospatuko duzu?

Ez naiz ospakizun handien zale, beraz, saiatuko naiz bertara hurbiltzen direnekin egoten eta argazkiak ateratzen, baina besterik gabe; afaritxoren bat egingo dugu, agian.

IGERIKETA ▶

Pako Sanchez VI. Memoriala jokoan da

Gaur arratsaldean, Gipuzkoa osoko gaztetxoak lehiatuko dira Usabalen

E. EZEIZA

Gaur, arratsaldeko lauetan, Paco Sanchez VI. Memoriala jokatuko da Usabalgo poliki-roldegian. Bertan lehiatuko dira alebin eta benjamin mailako neska-mutilak.

Txapelketan Gipuzkoa guztiko taldeek hartuko dute parte, denera, 215 gaztetxo arituko direlarik igerian. Hala,

hauek estilo guztietako probak gauzatzeko dituzte.

Amiaeraren, berriz, erreleboen proba jokatuko da, 4x100 estilo librean. Lasterketa honetan, bi neska eta bi mutilak osatutako talde mistoek hartuko dute parte. Honela, azken lasterketa honetako talde garailea Pako Sanchez VI. memorialeko irabazlea izango da.

GIZARTEA ▶



25 urte igarota ere, errealzaleek gogoan dituzte

E. Ezeiza ▶ Aste honetan 25 urte bete dira Realak lehen Liga irabazi zuenetik. Hori dela eta, 1980-81 denboraldi horretan taldean aritu ziren jokalariek omenaldi beroa jaso zuten atzo, Txinparta elkartearen eskutik. Ekitaldia hasteko herriko gaztetxoek harrera egin zieten Gorritz, Alonso, Idigoras, Satrustegi, Orbegozo... eta beste, txistulari eta dantzariekin lagunduta. Ondoren, udaletxeko pleno aretara zuzendu ziren, eta han Jon Iraola umorista eta aktorearen laguntzarekin omenalditxoak egin zieten jokalariei ohiei. Honen ostean, Martinez jatetxera joan ziren protagonistak afaltzera. **ESTI EZEIZA**

hilberria ▶



Inaxio Barrenetxea Retegi

**urak dakarrena
urak daroa
zuk emandakoa
gurekin gelditzen da**

Zure sendiak: muxu handi bat

Gorpuari lur-emeata gaur larunbata izango da hilerrian, 17:30ean, eta ondoren, 19:00etan, hileta elizkizunak izango dira, Oiarzungo San Esteban elizan. Guztiei eskerrik asko aldeaz aurretik.

Helbidea ▶ Torres baserria, Txaloka bidea, 13.
oharra ▶ gorputz beila elizako tanatorioan izango da.

OIA RTZUN, 2006ko apirilaren 29a

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko hitza.nfo

MUSIKA ▶

Skalariak-ek 'Luz Rebelde' aurkeztuko du Bonberenean

Gaur, 22:30etik aurrera, eskainiko du taldeak Gipuzkoan egingo duen birako lehen aurkezpen kontzertua



Skalariak taldeak Txiletik egin berri duen biraren une bat; gaur Tolosako Bonberenean ariko dira. HITZA

HIART LEITZA ▶ SKALARIAK TALDEKO TEKLISTA

«Bonbereneara gogoz gatoz, eta proiektua ezagutzeko ilusioa dugu»

Ordu batzuk baino ez dira falta Skalariak taldearen doinu dantzagarriak Tolosako Bonberenean entzuteko. Hiart Leitza teklistik kontzertu honen eta haien ibilbidearen gainean jardun du HITZarekin.

Zer entzun daiteke zuen azken diskoan?

Guztira, hamabost abesti bildu ditugu *Luz Rebelde* diskoan; gure betiko sustraiak mantentzen ditugu, baina oraingoan beste estilo batzuekin fusioa egin dugu, besteak beste, soul, funky, ska lasaiagoa eta reggae.

'Luz rebelde' izena nola sortu zen?

Bizitzen dugu aro beltz honean zeinean arazo asko dagoen, argi itxaropentsu bat pizteko. Aurreko hiru diskoak trilogia modukoa izan dira. Azken honekin aro berri bati hasiera eman diogu, ideia filosofikoa-

goa da; izan ere, aurrekoekin hainbat proiektu egikaritu ditugu.

Zeintzuk dira proiektu horiek?

Aurreko diskoa, *Radio Ghetto* izenekoa, ekintzetara eramane genuen eta Internet bidezko irratia sortu genuen, besteak beste. Honen bidez zuzeneko kontzertuekin konexioak eta talde askotako musika eskaintzen dugu. Honekin batera, gure web orria ere badugu.

Bonbereneara lehen aldiz zatozte.

Bai. Azaroan argitaratu genuen diskoa eta Bilbon aritu bagara ere Gipuzkoan emango dugun lehen kontzertua da. Gogoz heltzen gara Bonberenean. Gainera, bere proiektua ezagutzeko ere oso interesgarria iruditzen zaigu.

Zer espero duzue tolosar ikus-entzuelez?

Jendea biltzea espero dugu, beti ere Euskal Herrian jotzea berezia da. Ea jendea gustura geratzen den; ia bi orduko emanaldia eskainiko dugu

Lurralde ezberdinak ezagutu dituzue zuen biran.

Bai. Azarotik batera eta bestera gabiltza. Katalunian hasi ginen, eta, ondoren, Bilboko Kafe Antzokian jo genuen. Txilen ere izan berri gara. Ikaragarria izan da egonaldia. 5.000 lagun bildu ziren Victor Jara estadio-ara eta erabat entregatuta zeuden guztiak. Halaber, Suitza, Alemania eta Espainiatik barrera ibili gara. Tolosan aritu ondoren beste hitzordu asko ditugu.

Berezia izango da nazioarte mailako ospe hori...

Ez genuen espero. Oso emotiboa izan da. Internet bidez ezagutzen gaituzte. Gainera, Mexiko eta Txile aldean ska musika modan dago orain. Euskaldunak izatea ere badu eraginik.

Eta etorkizunerako proiektuetan pentsatzen al duzue?
Oraingoz azken diskoa defendatuko dugu zuzenean. Proiektu batzuetan ari gara lanean, baina helduko da hauek jakitera emateko unea. ◀

NOELIA LATABURU

Herrialde ezberdinetako mila-ika ikusle liluratu ostean, Gipuzkoatik barrera eramango dituen bira hasiko dute Skalariak taldeko partaideek, gaur. Eta Bonbereneako taula hautatu dute, hain zuzen, *Luz rebelde* diskoaren aurkezpenarako. 22:30etik aurrera, beraz, Arabako taldearen musikaz gozatzeko parada izango dute bertaratuek.

Taldea 1994. urte bukaeran jaio zen, batez ere Juantxo eta Peio Skalari anaiek ska musikarengatik zuten afizioari esker. Dozena bat kontzertu besterik ez zituztela bizkarrean, Gor zigilu nafarraren interesa piztu zuen taldeak eta 1997. urtean *Skalariak* izeneko lehen lana plazaratu zuten. 1999. urtea, berriz, *Klub Ska* diskoarena izan zen. Hau ere Gor Diskak-ekin egina, bertan jada «heldutasuna» somatzen da taldean. Diskoak harrera ezin hobeia izan zuen. Hau dela-eta bi urtetan etengabe aritu ziren ehundik gora kontzertu eskainiz, tartean Frantzia, Italia, Suitza eta Mexiko aldean ere ibili zirelarik. *En la calle* (2001, GOR Discos) hirugarren diskoak, *Ska Kalea* izenekoa sortzera eraman zituen. Hala, kalera atera zuten mezua. Musikari begiratu, lan honek soinu epel eta konpaktua eskaintzen du.

Azken urteak, goraka

2003an Skalariak-ek *Radio Ghetto* laugarren lana plazaratu zuen, BOA-cor zigiluarekin. Disko hau «mugarri» izan zela azaldu dute taldekideek. Eta, azkenik, 2005eko azaroan kaleratu du euskal taldeak *Luz Rebelde* (BOA cor) bosgarren diskoa. Berriz ere skalarien zigilu propioa ageri delarik...eta beste behin «publikoa harritzea lortu dutelarik». Honek «zalantza izpirik gabe», nazioarteko merkatuetako atea ireki dizkie. *Luz Rebelde* birak Txile, Alemania, Italia, Suitza, Espainia eta, nola ez, Euskal Herriko hainbat hiriburu eta herrietara eramango ditu hurrengo hilabeteetan.

Ez da ez, bada, txikia izango Tolosako Bonberenean izango duen ohorea kontzertua hau hartzerakoan. Herriko eta Euskal Herri osoko zaletuek gaur izango baitute lehen aukera taldearen aurkezpen kontzertua entzuteko.

GIZARTEA ▶

Emantzipazioa hizpide, lau hitzalditako ziklo berrian

Maiatzan zehar Kultur Etxean izango dira, 20:00etan, Kutxaren babesarekin antolatua

N. LATABURU

Tolosako Gazteria sailak hitzaldi zikloa antolatu du maiatzarako. Etxebizitza izango dute hizpide guztietan, guztira lau izango direlarik. Hilaren 4an Kreditu eskaeraren inguruko azalpenak izango dituzte mintzagai; maiatzaren 11n, berriz, Ogasuneko teknikari batek erregimen zibilen inguruan jardungo du; hilaren 18koan, aldiz, Etxebideri buruz ariko dira; eta azkenean, maiatzaren 25ean, Tolosako etxebizitzaren errealitatea aztertuko dute.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411

- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroazko dispen.: 672637
- ▶ Asunzioz Klinikak 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitza autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

ZIZURKIL ▶ MAIATZA SALTSAN 2006

Irudimena ardatz hartuta, ekitaldiz betetako maiatza

Kultur eta kirol ekitaldiak biltzen dituen Maiatza Saltsan-eko egitaraua aurkeztu zuten atzo Udaleko Kultura arduradunek

IMANOL GARCIA

Irudimena izango da aurtengo Maiatza Saltsan kultur eta kirol egitarauaren ardatza. Atzo egin zuten ekitaldien aurkezpena Axun Agirrezabala Kultur zinegotziak eta Ainhoa Larrea Kultur teknikariak. Ekitaldi andana prestatu dituzte, hilabete guztia betez. «Horrelako herri txiki batentzat egiten den ahalgina handia da», zehaztu du Axun Agirrezabalak.

Sari banaketak, kontzertuak, erakusketak, haur eta gazteen eguna, irteerak, biatloia eta txirridularitza proba... egitarau zabala, beraz. Ekitaldiak maiatzaren 2an, asteartea, hasiko dira, Teodoro Hernandorena IV. Ipuin Lehiaketako liburua-aren aurkezpenarekin. Iraitz Lizarraga ipuin kontalariak lehiaketan saritutako ipuinak kontatuko ditu.

Irudimenarekin lotura zuzenagoa izango duten ekitaldiak nabarmendu ditu Ainhoa Larreak, Mundua Jolasean egitasmoa, esaterako. Kulturarteko-



Ainhoa Larrea eta Axun Agirrezabala, ekitaldien kartelarekin. I. GARCIA

sunak lantzeko balioko du. Alde batetik, gurasoei eta irakasleei zuzendutako ikastaro bat antolatuko dute eta bestetik, Mundua Bira Jolasean izeneko egunbeteko ekitaldiak haurrentzat. Bestetik, Nafarroa Di-nezen margo erakusketa egingo da, eta Umorezko Bakarriketa Lehiaketako lan sarituak antzetzuko dituzte.

Kontzertuei dagokionez, nabarmentzekoak: Iker Goenea-ga zizurkildarraren *Amorrua* disko berriaren aurkezpena; musika zeltiarra *Noite meiga, sorginen gaua* ekitaldian, eta Sorkun eta Rafa Ruedaren emanaldiak. Kirolei dagokionez, Zizurkilgo 8. Biatloia izango da, eta Zizurkilgo Sari Nagusia neska txirridularientzat.

VILLABONA ▶ HEZKUNTZA



Urak duen garrantziaz

Erredakzioa ▶ *Errekamari* antzezlanak ikusi zuten atzo Fleming ikastetxeko 5. urteko, LH1eko eta LH2ko ikasleek. Hain zuzen, uraren unitate didaktikoa lantzen ari dira LH1 mailan, eta bizitzarako hain garrantzizkoa den elementu horren inguruko txotxongilo emanaldiaz gozatu ahal izan zuten haurrek. HITZA

VILLABONA ▶ GIZARTEA



Auzolana eta gero, kontzertuak

Erredakzioa ▶ Villabonako Gaztetxean Herri Olinpiaden beste hiztordu bat dute gaurkoan, 15:30ean hasita. Aurreko larunbatean ez zen probarik burutu, baina auzolanean aritu ziren eta ondoren musika kontzertuak entzuteko aukera izan zuten. Izeba Pila-rreren Ilobak Anoetako taldeak eta Orreaga 778 taldeak —argazkian—. Giro ederrean egin ziren emanaldiak. HITZA

PEUGEOTen atzaparkada berria

Zatoz ezagutzera

207 PEUGEOT

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 • Faxa: 943 65 29 38 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

LARRAUL ▶

Aiztondoko Pilota Txapelketako finalak, bihar

ERREDAKZIOA

Aiztondoko Pilota Txapelketako finalak jokatu dira bihar Larraulgo frontoian. 16:30ean hasiko dira partidak. Bikoteka ariko dira lehiari pilotariak lau mailatan: aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak eta kadeteak.

28. EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA

ERRENTERIA
2006 APILAK 29-30, MAIATZAK 1

ERRENTERIA EREINTZA ELKARTIA

kutxa

ERRENTERIA

ALEGIA ▶ GIZARTEA

Espero baino jende gutxiago Zerbeza Festan

Giro polita egon den arren, ez da beste urtetan bezainbeste kontsumitu

NEREA URBIZU

Intxurrek antolatutako Zerbeza Festa ez da aurten aurreko urteetakoak bezain arrakastatsua izan. Izan ere, antolatzaileek balantzea egiterakoan HITZATI adierazi dioten moduan, «guraso gutxi» ibili zen bertan.

«Suabea izan da». Afarian eta jateko orduetan jende ugari elkartu bazen ere —325 bat lagun—, ez zen garagardo gehiegirik edan. Oraindik ez dituzte kontuak atera, baina ez dirudi joan den urtean bezain diru kantitate polita atera dutenik.

Esan beharra da Lazkaoko jaiak ere zirela asteburu horre-

tan. Dena dela, herriko tabernetan jende asko ibili zela ere esan dute, eta giroa ere «politak» izan zela, baina kontsumo aldetik ez dira gauzak nahi izan zuten bezala atera.

«Ezkondutako jende gutxi hurbildu da Garagardo Festara», handik ibili zirenen arabera. Intxurreko jokalariek aritu ziren lanean eta haien guraso batzuk soilik.

Ostiralean 03:00ak arte egon ziren pilotalekuan eta larunbatean 02:00ak arte. Han sortutako giroa ona izan zen, eta antolatzaileek esan duten moduan, «ez da liskarrik ez tentsio unerik ere egon; jendea gustura ibili zen, eta antolakuntza aldetik ere arazorik ez zen egon».



Jatorduetan jende asko bildu zen Alegiako frontoira. HITZA

ALEGIA ▶ FUTBOLA



Intxurre infantilak Idiazabalen txapeldun

N. Urbizu ▶ Aste Santuan futbol zortzian aritu ziren jokatzeko Alegiako Intxurre taldeko futbolari gazteak. Idiazabalen jokatu zuten torneoa, eta Idiazabal, Aizgorri, Hernani eta Intxurre bera izan ziren jokatzeko aritu zirenak. Intxurrek Her-

naniren kontra garaipena lortu zuen, 5-2ko emaitza lortuz. Finalean, Idiazabalekin jokatu behar izan zuten eta hori ere irabazi egin zuten, 2-4ko emaitzarekin. Argi utzi zuen Xabat Renobalesen taldeak zein izan zen orduan onena. HITZA

ULERTZEKO Garai Berria

berria²

Hirukide
www.hirukide.org
Telefonoa: 943 670 311

Baberrera
Baberrera
Baberrera
Baberrera
Baberrera
Baberrera
Baberrera
Baberrera

SEGA ▶

Sega berpizteko xedea duen festa herrikoia antolatu dute

Iurreamendiko zelaietan izango da Taldekako Sega Lehiaketa maiatzaren 21ean



Esquer-eskuin: Jokin Garmendia, Arkaitz Arteaga, Julian Bereziartua eta Iker Garmendia baliarraindarrak. Maiatzaren 21ean, Taldekako Sega Lehiaketa Herrikoian parte hartuko duen taldeetako bat da. HITZA

Euskal Herriaren izaera ezagutarazi

Almitza sega taldea 1996an hasi zen elkartzen talde gisa. Zaldibia izan da taldearen sehaska edo bilgunea, batik bat bere sorreran, eta European antolatu ohi diren sega txapelketetan parte hartu edo lehiatzeko helburuarekin sortu zen. Elkartea 2001. urtean jaio zen ofizialki, 30 bazkiderekin. Sorrrera berria bada ere, sortzaileek eskarmentu handia dute kirol honetan.

Antolatzen dituen eta parte hartu izan duen ekitaldi guztietan Euskal Herriaren herri izaera ezagutarazi nahi izan dute; horretarako, sega taldeaz gain, dantzari, trikitilari, txistulari, joaldun, dultzainari, txalapartari... eta beste askoren esku hartzea ziurtatu du. Harri-jasotzaileek, aizkolariek eta trontzalariek ere parte hartu izan dute. Alemanian, —Baso Beltza eta Bavaria— Austrian, Hego Tirolen, Eslovenian, Finlandian... aritu zi-



Izaskun Larrarte ibartarra Alemanian, sega pikatzen. HITZA

ren nekazal topaketetan, sega «proba izarra dela» ikusi dute, eta haietan bizitako esperientzia horiek ekarri nahi izan dituzte Euskal Herrian sega berpiztu asmoz, «pixkanaka, kirol

hau indarra galtzen ari baita gurean». Halaber, Almitza sega elkartearen helburu nagusienetako bat euskal kirola eta kultura uztartu eta sustatzean datza. ◀

IÑIGO TERRADILLOS

Almitza sega elkarteak antolatuta, sega ikuskizun berezi bezain ikusgarria, «orain arte Euskal Herrian ikusi ez dena», izango da Tolosako Iurreamendiko zelaietan, maiatzaren 21ean, 11:30etik aurrera. Taldekako Sega Lehiaketa honetan, ohiko segalariez gain, bestelakoek, hau da, animatzen den orok parte hartu ahal izango du. Sega oinarritzat hartuko duen festa herrikoia izatea nahi dute, eta helburu nagusia segarako zaletasuna sustatzea izango da.

Europar barrena egin dituzten bidaietatik sortu zaie horrelako lehiaketa bat antolatzearen ideia; izan ere, harridura sortu die Almitza elkartekoei hainbat herrialdeetan segaren inguruan sortzen den mugimenduak, «lehiaketa baten harrian bizpahiru eguneko festa erraldoiak antolatzen baitira». Hala, atzerrian ikusi eta ikasitakoak Euskal Herrira ekarri eta bertan praktikan jartzeko erronka berria hartu dute, eta Tolosako izango da lehendabiziko saiakera.

Lehiaketan launakako taldeak ariko dira, eta segalarien lana epaitzerakoan, belarra mozteko azkartasuna eta txukuntasuna hartuko dute kontuan epaileek. Proba amaitu ostean, «gorputzak indarberritzeko eta jai giroak jarrai dezan», parte-hartzaileak bazkaria bilduko dira trikitilariekin eta bertsolariekin.

Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako hainbat taldek eman dute jada izena, tartean dira bertsolari eta trikitilari elkarteek osatu dituzten 2 taldeak, eta Kataluniatik etorritako 2 talde ere ariko dira. Lehia berezi honetan parte hartzera animatzen direnek azkar ibili beharko dute, datorren astearte, maiatzaren 2a, izango baita izena emateko azken eguna.

ZENBAIT DATU ▶

IZEN-EMATEA

Epea. Maiatzaren 2a.
Bete beharreko datuak.
▶ Taldearen izena.
▶ Lau partaiden izen-abizenak eta herria.
▶ Emakumezkoen ala gizonezkoen kategoriaz zehaztu.
▶ Zorroztaileren beharra adierazi, eta hala bada, bere izen-abizenak ere jarri.
Moduak. Izena emateko edozein zalantzetarako, 615 74 34 11 edo 659 67 16 24 telefono zenbakietan edo www.almitza.org webgunean.

PARTE HARTZEKO

BALDINTZAK
Taldeak. Lau segalariz osaturikoak behar dute izan.
Mailak. Gizonezkoenak, emakumezkoenak edota mistoak, emakume-gizon kopuruaren arabera.
Sega. Segalari bakoitzak bere sega (bakarra) erabiliko du.
Zorroztaillea. Taldeak zorroztaille baten laguntza izan dezake segalariek sega zorrotzen esperientziarik ez duten kasuan. Hala bada, antolakuntzari adierazi beharko zaio. Zorroztaille bat onartuko da taldean.

PARTZELAK

Neurriak. Moztu beharreko neurriak hauek dira:
▶ Emakumezkoetan: 8 x 15.
▶ Gizonezkoetan: 10 x 20.

MOZKETAREN ARAUAK

Zozketa. Talde bakoitzak zozketan suertatutako partzela moztuko du.
Txandan. Txandaka moztuko dute talde bereko segalariek.

PUNTUAZIOA

Kronometratzailea. Bi egongo dira talde bakoitzaren denbora hartu eta segalarien lana zaintzeko. Batez besteko denbora hartuko da kontuan.
Epaimahaia. Lau epailez osatua.
Balorzioa. Txukuntasuna aintzat hartuta, 0-4 bitartekoa izango da puntuazioa, eta 8 zenbakiarekin biderkatuko da. Ondoren, denbora batuko zaio azken emaitza lortzeko. Baxuenak irabaziko du.

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Laborategiak. Hurrengo deialdiak teknikoak, unibertsitate laguntzaileak, ospitaleak. 943 31 37 82.

Mantentze-lanak. Mekanikariak, gidariak. Hurrengo deialdiak udaleteba eta Foru Aldundiarentzako.

Informazioa doan. 943 31 37 82.

Elbarrituak. Hurrengo deialdiak Foru Aldundiarentzako. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Gipuzkoako Foru Aldundiak behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, gidariak,

haurtzaindegiko hezitzaileak, basozainak, garbitzaileak. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak. Beasain, Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoetako udalek administrari laguntzaile

lanpostuak bete behar dituzte. Hilean 1.500 euro. Doako informazioa. 943 31 37 82.

Gidariak. Udaletan eta Foru Aldundian laster lanpostuak. Kontratu mugagabeak. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Lanpostu finkoak:

Esku Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informa zaitez: 943 31 37 82.

Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak. Postu libreak Eusko Jaurilaritza. Asteburuetan libre. 943 31 37 82.

IBARRA ▶ GIZARTEA



Iazko bukaerako bazkaria. Aurturaren egunaren dute. HITZA

Olinpiada txikietako 2. txanda dute gaurdanik

Xepla elkarteak ditu puntu gehien oraingoz; bihar erabakiko dute txapelketako irabazlea

J. ASTIBIA

Aurtengoz, bigarren asteburua ere iritsi zaie Olinpiada Txikiei eta ekintzaz beteta ailegatu ere, zer ikusia baino, zertan parte-hartua izanen dute ibarretarako oraingoan ere.

Aurreko asteko sailkapenaren eskuan, Xepla elkarteak dago buruan, 39 punturekin, orpoz orpo I.K.E.-A taldeak jarraituta, 37 punturekin. Baina oraindik ere gainerako 10 taldeek badute betarik lagunarteko txapelketa honi itzulita emateko, geratzen diren probak horretarako aproposak ere badira eta.

Gaur arratsaldean bertan, San Bartolome plazan, 17:00-etan, mimika-jokoa eginen dute eta 19:00etan, edari-dastaketa. Batean, partaide batek mimika bidez zerbait azaldu eta gainerakoek asmatu egin behar dute; bestean, 10 edari-artearen asmatu behar dute zer den, begiak eta belarriak

LEITZA ▶

Lizarraga kaleko aparkalekuak ez erabiltzeko deia

Leitzako Udaletik atzo igorritako ohar baten ariara, «maiatzaren 2tik aurrera, Lizarraga kalean, igerilekua eta futbol zelaiaren tarteko terrenean» aparkalekuak egiteko lanak hasiko dituzte, eta obra hauen ondorioz, kale horretan alde batera dauden aparkalekuak ezin izango omen dira erabili. Atzo berean jada, eremua mugatzen hasita zeuden langileak. Era berean, eskaera hau «errespetatzea» eskatu dute ohar berean Udalen arduradunek.

SAILKAPENA ▶

1. go asteburua.

Izena	puntuak
1. Xepla	39
2. I.K.E.-A	37
3. Merkataraiak	29
4. Bizi Nahi	29
5. Sendi Ekintza-A	28
6. I.K.E.-B	27
7. Uzturpe-C	26
8. Uzturpe-A	22
9. Sendi Ekintza-B	21
10. Uzturpe-B	21
11. Ingo al deu?	16
12. Uzturpe ikasleak	15

ixtita dituztelarik. Bihar, berriaz, 08:00etan hasita ibilaldi neurtua eginen dute. Eta 11:00etan bakailoa Bizkaiko erara prestatuz, sukaldaritza frogara eginen dute. Ordubietan parte-hartzaile guztiek herri bazkaria eginen dute plazan bertan, jan eta kantatzeaz gain, sariak ere orduan banatu dituztelarik.

LEITZA ▶

Eskolako futbol txapelketako antolaketa bilera

Gaur iluntzeko 19:00etan, Aurrera elkartearen egunen dute Eskolako futbol txapelketa gisa ezagun den antolaketako. Txapelketa horretan parte hartu nahi duten taldeei bertara joateko deia egin diete; izan ere, «guztien artean erabakiko dira aurdia eta jokorako baldintzak». Hala eman dute jakitera. Horretarako talde bakoitzan botu bana izanen omen du. Bilera egin eta bi aste epea izanen dute taldeek beren parte-hartzea finkatuz, izena emateko.

LEITZA ▶ KIROLAK

Urrezko aizkolari eta harri-jasotzaile lehian Rekondo eta Urrutia

Bihar jokatu du Rekondok aizkorako 23 urtez beheko kanporaketa; Urrutia harri-jasotzaileak etzi, Berri mailan

JAIONE ASTIBIA

Asteburu honetan bi leitzarrek parte hartuko dute herri kirol-tan jokatu ari diren Urrezko Aizkolari eta Harri-jasotzaile Txapelketetan: Jon Rekondok eta Josetxo Urrutiak. Hurrenez hurren, bata 23 urtez beheko mailan, banakako Urrezko Aizkolari kanporaketa jokatu du, Xabier Mindegiaren aurka; besteak, Urrezko Harri-jasotzailearen baitako Berri mailako binakako lehiaketan du estreinako saioa, Mintxeta II.a izanen du lagun, Urpe-Agirre bikoa arerio dituzela.

Hala, Rekondok bihar bertan du kanporaketa, Zumaiaiko Odieta pilotalekuan, 12:15ean hasiko den kirol jaialdian. Leitzarrek kanporaketa «oso gogorra» suertatuko zaiolakoan dago, «hau [Mindegia izanen du aurrean], Larretxearekin txapeldun atera zuten zaila izanen dugu aurrera egitea», arazoitu dio Hnzari.

Zaila, baina estutuz

Edozein moduz, estutzen saiatuko dela ere esan du; izan ere, bera ere nagusiekin lehiatu da orain arte txapelketa honetan, eta prestaketa ona eginda dago. Lanei dagokienez, bere ustez «oraingo hauek erosoagoak dira, zutik ez dugu ebaki beharrik eta horrek nekea ere gutxiago izatea eragiten baitu». 45 ontzako enborra ahalik eta kolpe gutxienean ebakitzea; beste 45 ontzako bat, ahalik eta azkarren; 60 ontzako ere erlojuz kontra; eta bukatze-



Rekondo aizkoran eta Urrutia harri jasotzen, asteburu kiroltsua. J. A.

JON REKONDO
AIZKOLARIA

«Oso gogorra izanen da, Mindegia Larretxearekin txapeldun atera baitzen binakakoan»

ko, bi 45 ontzako eta bi kanerdi, zeinek abudona. Horixe dute lana.

Sei aizkolari lehiatuko dira maila honetan. Bi hauez gain, hemengo irabazlearekin jokatuko duen Atutza II.a (gazteen mailako txapelduna), eta beste adarretik, Mugertza II.a, Amillano (bi hauez etzi dute norgehiagoka) eta Otaegi zizurkildarra.

Biharkoan Urrezko mailako ligaxkan, Mikel Mindegiaren eta Larretxearen arteko lehia

ere jokatuko dute; baita Urrezko Harri-jasotzaile Txapelketan, Berri Mailako binakako lehen kanporaketa ere, aurreneko aldiz.

Hain zuzen ere, etzi, maiatzak 1ean, jokatuko dute sariketa horretako bigarren saioa, Estibalitzko Santutegiko atarian, eta Urrutiak hortxe izanen du bere txanda.

Urrutia estreinakoz

Mintxeta II.a izanen du bikote leitzarrek eta Urpe-Agirre bikotearekin lehiatuko dira. Bi minutuko txandetan, 100 kiloko zilindrikoarekin eta 100 kiloko kubikoarekin, banaka ari beharko dute laurak; eta 100 kiloko bolarekin, binaka, txanda librean ariko dira.

Azkenean, kilo gehien jaso dituen bikoteak irabaziko du saioa.

TOLOSALDEKO
HITZA.INFO

Iruditan. Gure web orrian III. Hitza Argazki Lehiaketara igorritako argazkiak ikusgai daude. Egunez egun iristen ari direnak horixe zintzilikatzen dira. Gero, guztien artean, irakurleok ere geure iritzia emateko bidea izanen dugu, bozketa bidez, sariduna aukeratzeko tenorean.

ARAMBURU
Alokatzeko, Pisua, Tolosa, Ibarra, Anoeta, Alegia, A mezketa eta Lasarten.
Salgai (Tolosa), Pisua Belate kalean. 75 m2.
Salgai (Tolosa), Pisua San Frantzisko, 17. 140 m2. Garajea aukeran.
Salgai (Tolosa), Pisua Larramendi kalean. 112m2.
Salgai (Berrobi), Pisua, baratza eta txabola. 168.00 euro.
Salgai (Tolosa), Garajeak Plaza Zaharrea, Pedro de Tolosa eta Leidorren.
Alokatzeko (Anoeta), Pisua guziz prestatua.
Alokatzeko (Ibarra), Pisua, Julian Gayarre kalean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

OREXAKO UDALA
ESKARI PREZIOSA
ESKARI BERBIA
ONDO PASA
OREXAR GUZTIAK



AGENDA ▶

ANTZERKIA

Berastegi. Antzerki taldearen emanaldia. 19:00etan, eskolan.
Tolosa. *Titirikontu kontari.* Txobxongilo emanaldia 3 urte bitarteko haurrentzat. 17:30ean, Kultur Etxean.

DEIALDIAK

Tolosa. AHTren aurkako elkarretaratzea. 12:00etan, Trianguloan.

MUSIKA

Tolosa. Skalariak taldearen kontzertua. 22:30ean, Bonberenean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren 36. 112.
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
10:30-13:00. *Hitza* hegazti magazinaren elkarrizketak, *Mundurako* leihoa, kolaboratzaileak, agenda, porra, disko eskainiak...

Goiko irrattia (107.0 FM)
13:00. *Komerra* magazina. Posta elektronikoa: komerra@hotmail.com

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tarte

ARGAZKI LEHIAKETA ▶

ERRIOXA ▶

Haritz Aldazabal Mateo (Tolosa).

Lagun koadrilan gozatu du oporraldiaz Haritz Aldazabalek. «Errioxan, Navarretetik gertu. Talde giroan bidean zehar zoazela, edozer bihurtu daiteke jolastokia. Harrobi bat...edo Everest?».



SUEDIA ETA NORVEGIA ▶

Naiara Goikoetxea (Tolosa).

«Nire ahizpa Suediako Kiruna herrira joan zen, hau da, Ipar Polara, Aste Santuko oporretan. Eta egun horietan Norvegiako fiordoetara ere joan ziren. Paisaia hauetako argazkiak bidaltzen dizkizuet. Nire ustez oso paisaia ederrak dira».



MUTRIKU ▶

Jose Mari Olasagasti Arruti (Orio).

Euskal Herrian hara eta hona ibiltzeko baliatu ditu Aste Santuko egunak Jose Mari Olasagasti oriotarrak. Hainbat txokotako irudiak bidali ditu III. HITZA Argazki Lehiaketara. Honakoa apirilaren 14an atera zuen. «Ziñoa Baserrria da, Mutrikuko haran ezkutuan», dio.

hitza
argazki
lehiaketa

bidali argazkiak


ARGAZKIAK NORA BIDALI

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
 - ▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA
- Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leizako HITZAren egoitzetara ekarri
- OINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info**

Sari nagusia

BIDAIA paregabe bat zure neurria

2 laguntzat 5 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Asturiasen edo Costa Bravan



Bidaia Agentzia bidaide
www.bidaide.gruposercor.com

Ernioeoa, 6-behea • 20150 Villabona
Tel.: 943 692 693
bidaide@gruposer.com

ZOKETA APARTAK

PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE
guztien artean HITZAren motikila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira

